

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Nafarroa, Orotan Lagun / Navarra + Voluntaria” ekimenak webgunea estreinatu du asteazken honetan 44 nafar entitateen boluntariotza arloko eskaintza bilduz

*Nafarroako Gobernuaren Boluntariotza arloko Ekintza Plana ezagutzera emateko lanari atxikita garatu da*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 13

Asteazken honetan  
abiarazi da



Egindako ekintzetariko baten irudia.

[www.navarramasvoluntaria.es](http://www.navarramasvoluntaria.es) webgunea, euskarazko zein gaztelaniazko bertsioetan, boluntariotza-ekintzak bilatzen dituzten pertsonak Nafarroako entitate antolatzaileekin harremanetan jartzen laguntzeko xedez. Horretarako, entitateek nahiz interesdunek izena ematen ahal dute webgunean bertan, eta antolatuz doazen ekintzei buruzko informazio osoa jasoko dute.

Webgunean bildutako hasierako eskaintzak hezkuntza, osasuna, ingurumena, desgaitasuna, gizarte inklusioa, mendekotasuna, gazteria eta haurtzarora tarteko dituzten 25 boluntariotza-ekintza bildu ditu, Nafarroako Gobernuaren ekimen honi atxikitako 44 entitateetako batzuen eskutik.

Bilatzaile baten bitartez, boluntariotzaren aldeko konpromisoari loturiko pertsonak erraztasun osoz aurki dezakete gehien interesatzen zaien ekintza. Bilaketa herri, data zein kategoriaren arabera egiten ahal da.

Webgune berri hau da, Nafarroako Gobernuak iazko abenduan onartu eta Iruñeko Txantrea auzoan (Aita Adoain kaleko 217an) finkaturiko [‘Nafarroa Orotan Lagun / Navarra+Voluntaria’ Boluntarioendako Informazio eta Koordinazio Gunearen](#) inaugurazioarekin abiatu zen [Nafarroako Boluntariotzaren Ekintza Planaren](#) bigarren aurrerapausoa.

Webgune honetan bildutako jarduerak eta ekimenak sare sozialetan zehar ere zabalduko dira Nafarroako Gobernuaren eta ekimenari atxikitako entitateen kontuen bitartez, #NafarroaOrotanLagun eta #NavarraMasVoluntaria etiketak erabiliz.

**Nafarroa Orotan Lagun ekimenari atxikitako 44 boluntario**

## **entitateen zerrenda**

Adacen Garuneko Kaltearen Nafarroako Elkarte; AECC NAFARROA (Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarte); AFINA (Fibromialgiaren, Neke Kronikoaren Sindromearen eta Sentiberatasun Kimiko; Anizkoitzaren Sindromearen Nafarroako Elkarte); Amimet, Desgaitasuna duten Pertsonen Nafarroako Erriberako Elkarte; Anfas Lurralde Iraunkorrak Sustatzeko Elkarte (TESOS); Lakarra Adinekoen Elkarte; "CAHIRES" ingurumen boluntarioen elkarte; Hiru Hamabi elkarte; Manabi elkarte; SEADen Lagunen Nafarroako Elkarte (ANARASD); ANA Nafarroako Autismo Elkarte; Nafarroako Laringektomizatuen Elkarte; SEI elkarte; Nafarroako Down Sindromearen Elkarte; Zerynthia elkarte; Aspace Nafarroa elkarte; Berdesia; Berriro ere; Bidelagun, Laguntza Emaille Taldea; Bizilaguna Gizarte Ekintza-BAS; Benito Menni Ospitale Zentroa; Aita Menni Klinika; Nafarroako GGKEen Koordinatzailea; Nafarroako Gurutze Gorria; Adecco Fundazioa ; Nafarroako Elikagaien Bankua Fundazioa; Gaztelan Fundazioa; Ilundain Fundazioa; Itaka-Escolapios Fundazioa; Profesional Solidarioen Fundazioa; Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa; Santa Luzia – ADSIS Fundazioa; Ijitoen Idazkaritza Fundazioa; Munduko Medikak Nafarroa; Nagusilan; Oxfam Intermon; Nafarroako Ingurumen Boluntarioen Informazio eta Koordinazio Gunea; Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarte; Suma Con Causa; Iruñeko San Frantzisko Geriatrikoko Boluntarioak; Iruñeko eta Tuterako San Joan Jainkoarenaren Ospitaleko Boluntarioak; VOZ Zizurko Boluntarioak